

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bermeoko Udala****Bermeoko Udaleko eta bere Erakunde Autonomoetako negoziazio mahai orokorraren funtzionamendurako araudiaren aldaketa.**

Bermeoko Udalak, 2020ko azaroaren 20an, Bermeoko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako negoziazio mahai orokorraren funtzionamendurako araudia aldatzea hasikeraz onartzea ebatzi zen.

Izapide hori egin ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (49 zenbakia, 2021ko martxoaren 12koa) iragarkia argitaratuta, jendurrean jarri eta 30 eguneko epean, ez da inolako alegaziorik egin.

Hori ikusita, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ordenantza hori behin betiko onartuzat jotzen da, hura argitara dadin.

Bermeon, 2021eko apirilaren 16an.— Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense



I. ERANSKINA

BERMEOKO UDALEKO ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOETAKO NEGOZIAZIO MAHAI OROKORRAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIA (2020)**1. artikulua. — Xedea**

Bermeoko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako Negoziazio Mahai Orokorraren antolakuntza eta funtzionamendurako arauak ezartzea da Araudi honen helburua, beti ere, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateragina onartzen duen urriaren 5eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren IV. kapituluan ezarritakoa errespetatuz.

Halaber, erabakiak edota itunak hartzeko prozedura ere arautzen du.

2. artikulua. — Aplikazio eremua

Bermeoko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileen lan baldintzak ezartzeko Negoziazio Organo gorenara da Negoziazio Mahai Orokorra eta hori da Udal honetan eraturako organoa esleitzen zaizkion funtzio eta ahalmenak betetzeko.

3. artikulua. — Negoziazio mahaiaren betebeharrak, helburu eta jarraitu beharreko printzipioak

Negoziazio mahaiaren betebeharrak, helburu eta printzipioak hauek izango dira:

- Bermeoko Toki Administrazioako negoziazio mahai legeaz, Bermeoko Udala eta bere Erakunde Autonomoen enplegatu publiko guztien lan baldintzak negoziatu.
- Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateragina onartzen duen urriaren 5eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 33. artikuluan ezarritakoa betetz, Negoziazioa, printzipio hauek errespetatuz burutuko da:
 - Legalitate printzipioa.
 - Aurrekontu estaldura.
 - Derrigortasuna.
 - Fede ona.
 - Publizitatea.
 - Gardentasuna.

4. artikulua. — Mahaiaren eraketa eta ordezkaritza

Negoziazio Mahai Orokorraren osaera paritarioa izango da, eta Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateragina onartzen duen urriaren 5eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoaren arabera, bertan izango dira, legitimazioa dutelako alde batetik, dagokion administrazio publikoaren ordezkariak, eta, bestetik, estatu osoan ordezkariarik gehien duten erakunde sindikalak, autonomia-erkidegoan ordezkariarik gehien duten erakunde sindikalak, eta, Langileen Bartzordeak eta Ordezkariak aukeratzeko hauteskundeetan, bakoitzaren berariazko eraketa-eremuan dauden hauteskunde-unitatean, ordezkarietatik ehuneko 10 edo gehiago lortu duten sindikatuak.

Negoziazio Mahai Orokorra osotu eta gero, hauteskunde sindikalen emaitzen ondorioz, ordezkariak sindikalaren eraketa aldatzen bada, aldaketa hori Negoziazio Mahaiko Lehendakariari jakinaraziko zaio idatziz.

Guzti horren arabera, gehienez hamar (10) kidek osatuko dute Negoziazio Mahaia:

Mahaiburua

Alkatea edo langileria saileko zinegotzi delegatua eta bere betebeharrak honako hauek izango dira:

- Bileretako deia egiteko erabakia hartzea eta eguneko gai zerrenda zehaztea.
- Bilerak moderatu eta koordinatu.

**Idazkaria**

Negoiazio Mahaiaren jarduketan legezketasun formala eta materiala zaindu behar du, organo horren jarduketak ziurtatu behar du, eta eraketarako nahiz erabakiak hartzeko prozedura eta erregelak errespetatu daitezela bermatuko du. Bere betebeharrak honako hauek izango dira:

- Aktak eta beharrezko dokumentazio guztia.
- Bileretako deia egin eta Negoiazio Mahaiko lehendakariari gai-zerrendaren presaketan laguntza eman.
- Bileretako aktak egin eta helaraztea.
- Zuzenbidezko argibideak eman eta legezketasun oharra egin batzarretan zehar.

Mahaikideak

- a) Toki Administrazioak izendatuta gehiengo lau (4) mahaikide (Lehendakariaren aparte).
- b) Ordezkaritza Sindikalak izendatuta gehiengo bost (5) mahaikide. Ordezkaritza sindikalak Negoiazio Mahaiari jakinaraziko dio idatziz izendatutako ordezkari titularra eta ordezkoa, sindikatu bakoitzari dagozkion ordezkarien kopurua gainditu gabe.

Aholkulariak

Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateragina onartzen duen urriaren 5eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 35.3. artikuluan xedatutakoaren arabera aholkularien laguntza jaso ahal izango da, eta aholkulari horiek, hitza bai, baina botorik ez dute izango.

Beharrezkoa izanez gero, eta mahaia aho batez horrela adosten badu, edozein zerbitzu edo saileko arduradunaren aholkua eskatuko da.

Bestalde, boto eskubidea ez duten sindikatuek, batzarretan parte hartzeko aukera izango dute.

Aholkularia bertaratzea proposatzen duen alderdiak Lehendakariari jakinarazi behar dio idatziz, bilera izan baino egun bi lehenagoko aurretiaz.

Toki Administrazioako eta ordezkari sindikaleko kideak Mahaian bertaratzea delegatu ahal izango dute beste kide batengan, horretarako Negoiazio Mahaiari aurretiaz jakinaraziz.

5. artikulua. — Negoiazio gaiak

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluan ezarritakoaren arabera, bere eremuan eta kasuan-kasuan legez dagozkion irismena izanik, ondorengo zerrendan jasotako hauek izango dira negoziazio-gaiak:

- Estatuko nahiz autonomia-erkidegoetako Aurrekontu Orokorren Legearen ezarritakoaren arabera, administrazio publikoetako langileen ordainsarrietan egin beharrekoko igoera aplikatzea.
- Funtzionarioen ordainsari osagarrien zenbatekoa ezartzea eta aplikatzea.
- Irizpide orokorrak finkatzeko arauak, gai hauek direla eta: enplegu publikora iristea, karrera egitea, lanpostuak betetzeko moduak, lanpostuak sailkatzeko sistemak eta giza baliabideak antolatzeke planak eta planifikazio-tresnak.
- Jarduna ebaluatzeke orduan, irizpide eta mekanismo orokorrak finkatzeko arauak.
- Gizarte-aurreikuspen osagarriko planak.
- Barne-sustapeneko eta prestakuntzako planak eta funtsei buruzko irizpide orokorrak.
- Gizarte-prestazio eta klase pasiboaren pentsioak zehazteke irizpide orokorrak.
- Eskubide sindikalei eta parte-hartzeari buruzko proposamenak.
- Gizarte-ekintzari buruzko irizpide orokorrak.



- Laneko arriskuen prebentziarako arautegian halaxe ezarrita daudenak.
- Funtzionarioen lan-baldintzetan eta ordainsarrietan eragina dutenak, baldin eta horiek arautzeko lege-mailako arauak izatea beharrezkoa bada.
- Enplegu publikoaren eskaintzei buruzko irizpide orokorrak.
- Hauei dagozkienak: lan-egutegia, ordutegiak, lanaldiak, oporrak, baimenak, mugigarritasun funtzionala eta geografikoa, baita giza baliabideak estrategikoki planifikatzeko irizpide orokorrak ere, enplegatu publikoen lan-baldintzetan eragina duten alderdiei dagokienez.

Udalak, beren antolamendu-ahalekin loturik hartzen dituzten erabakien ondorioek aurreko zenbakian adierazitako funtzionario publikoen lan-baldintzetan eragina dutenean, egoki izango da baldintza horiek Negoziazio Mahai honetan adierazitako erakunde sindikalekin negoziatzea.

6.artikulua. — Deialdiak eta bilerak

1. Negoziazio Mahai Orokorra, ohiko izaerarekin bi hilerik behin bilduko da eta izaera bereziarekin beharizan edo negoziatu beharreko gaien arabera beharrezkoa den kasuetan:

- a) Toki Administrazioako ordezkariak erabakita.
- b) Toki Administrazioako ordezkarien eta ordezkariak sindikalaren adostasunez, bileraren amaieran hurrengo deialdirako data finkatuz.
- c) Negoziazio Mahaiko ordezkariak sindikalaren gehiengo osoaren erabakiz (urtean 3 eskatu daitezke).
- d) Emergentsia egoeretan, bai Toki Administrazioako ordezkariak erabakita bai Negoziazio Mahaiko ordezkariak sindikalaren gehiengo osoaren erabakiz.

2. Negoziazio Mahaiko bileren iraupena gehiengo ordu bikoia izango da.

3. Deialdiak, bilera amaieran adostutakoak izan ezik, bost laneguneko aurretiaz egingo dira, idatziz eta data eta ordua adieraziz.

Emergentsia egoeretan deitzen diren bilerak, hiru laneguneko aurretiaz egiteko ahalgina egingo da, baina egoeraren premiatasunak horrela egitea ahalbidetuko ez balu, 6 orduko aurretiaz egin ahal izango dira.

24 orduko epea errespetatzen ez duten deialdien kasuan, lehenengo puntu moduan, bileraren premiatasuna berretsi beharko da kideen gehiengo osoz.

4. Gai zerrendan zehazten diren eztabaidatzeko gaiak buruzko dokumentazio osoa Mahaikideen esku jarriko dira deialdia egiten den egun berean, emergentsia egoeretan deitzen diren bileretan izan ezik. Azken kasu hauetan, bileraren hasiera arte banatu ahal izango da beharrezkoa den dokumentazioa.

5. Administrazio Publikoaren Administrazio Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritakoaren arabera, deialdiak Egoitza Elektronikoaren bidez egingo dira.

- a) Lehendabiziko deialdian, bilerak egiteko, eztabaidatzeko eta adostasunak lortzeko, alde bakoitzeko gehiengo osoa egon beharko da, ezinbestekoa izanez bertan Mahaiburua eta idazkaria egotea.
- b) Bigarren deialdia ordu bat geroago izango da, eta nahikoa izango da mahaia osotzen duten kide guztien gehiengo osoa egotea, ezinbestekoa izanez bertan Mahaiburua eta idazkaria egotea.
- c) Emergentsia egoeretan deitzen diren bileren kasuan, nahikoa izango da mahaia osotzen duten kide guztien gehiengo osoa egotea lehenengo deialdia, eta kide guztien herena bigarren deialdia, ezinbestekoa izanez bertan Mahaiburua eta idazkaria egotea.
- d) Lehenengo zein bigarren deialdietako bilera lekua, eguna eta ordua idatziz jakinaraziko zaie batzordekideei.
- e) Ez ohiko deialdiak Mahaiburuak egingo ditu batzordean erabakitakoaren arabera edo, gutxienez, hiru mahaikideren eskabidearen arabera, eskabidea egin



eta aste bateko epearen barruan. Emergetzia egoeretan deitzen diren ez ohiko bileren kasuan, artikuluko honetan 3. Atalaren bigarren paragrafoan zehaztutako epeak errespetatuko dira.

7. artikulua. — Gai-zerrenda

1. Bilerako gai-zerrenda deialdia egiten duenek finkatuko dute edo aurreko bilera amaitu ondoren zehaztuko da.
2. Bilera bakoitzeko gai-zerrendako lehenengo puntua aurreko saioaren akta onartzea izango da, emergentzia egoeretan 24 orduko epea bete gabe deitzen diren bileren kasuan izan ezik, lehenengo puntua, bileraren premiatasuna berrestea izango baita.
3. Gaiaren kopurua nabaria den kasuetan eta denak eztabaidatzea ezinezkoa denean, Negoziazio Mahai Orokorrak, aurre-puntu bezala, eztabaidatzeko gaiaren hurrenkera adostu beharko du, eta tratatu ez diren gaiak hurrengo bilerarako gai-zerrendan sartuko dira.

8. artikulua. — Bileren funtzionamendua

Lehendakariak bilera hasiko du gai-zerrendako gaiaren hurrenkera jarraituz. Hurrenkera hori aldatu daiteke edozein mahaikideren eskariz eta gehiengoaren adostasunarekin. Bilera hasi ondoren, gai bat gai-zerrendan premiatasunez sartzeko beharrezkoa izango da Toki Administrazioaren ordezkartzaren eta ordezkartza sindikalaren gehiengo osoa bertan egotea eta gaiaren premiatasuna aitortzeabertaratutako gehiengo osoz. Emergentzia egoeretan deitzen diren bileren kasuan, gai bat gai-zerrendan premiatasunez sartzeko, nahikoa izango da mahaikideen herena bertan egotea eta gaiaren premiatasuna aitortzea bertaratutako gehiengo osoz.

Lehendakariak proposamena irakurriko du horrela dagokionean eta eztabaidatu beharreko gaia azalduko du, ondoren, hitza emango dio ordezkartza sindikal bakoitzari. Administrazioaren ordezkariak ordezkari sindikalaren alegazioei erantzungo die, eta ordezkari sindikal bakoitzeko beharrezko interbentzioak baimenduko ditu.

Interbentzio hauen hurrenkera sindikatu bakoitzak daukan ordezkari kopuruaren arabera izango da, ordezkari gehien duen sindikatuak hartuko du hitza lehenengoz.

Gai bati buruzko eztabaidan adostasunik lortu ez denean, negoziazioa egindakotzat emango da eta Lehendakariak gaia mahai gainean utzi ahal izango du, negoziazio mahaiaren jarduerak aurrera jarraitu ahal izateko.

9. artikulua. — Aktak

1. Negoziazio Mahai Orokorrak egiten duen saio edo bilera bakoitzaren akta jasoko da, eta honako hauek gutxienez jasoko dira:
 - Bileraren data eta tokia.
 - Bileraren hasiera eta amaiera ordua.
 - Alde bakoitzeko bertaratuen izen abizenak.
 - Negoziazio Mahai Orokorrean aurkeztutako gaiak, proposamenak eta dagokionean horiei buruz egindako bozketak, emaitzak zehaztuz eta gai bakoitzari buruzko adostasunak eta desadostasunak badaude zehaztuz.
 - Toki Administrazioiko edo ordezkartza sindikaleko kideren baten eskariz, aktan jasoko da gai bateri buruzko jarrerak eta iritziak.
2. Aktaren kopia kide titular guztiei bidaliko zaie alde-aurretik, akats material, aritmetiko edo egitezkoak badaude dagozkion zuzenketak egiteko.
3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, Idazkariak saio bakoitzeko akta egingo du, eta Lehendakariak eta Idazkariak sinatuta egongo da.

**10. artikulua.—*Erabakiak hartzea***

Batzorde honek emango dituen proposamenak alde bien adostasunarekin onartutako dira, alde bakoitzeko boto bateratua izateko, ez baita derrigorrezkoa negoziatzen dana adostea ezta negoziazioa adostasun batean amaitzea, baizik eta negoziatzea; hau da, negoziatu egiten dela bermatu beharko da eta 3. atalean jasotako printzipioak errespetatuz egiten dala ahalegin hori.

Boto bateratua izateko boto ponderatuaren sistema erabiliko da, Negoziazio Mahai orokorrean alde bakoitzak duen ordezkaritzaren arabera.

Negoziazioa amaitutzat ematen denean, adostasuna lortu dan edo ez kontutan izanda, aukera bi horietariko bakoitzerako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateragina onartzen duen urriaren 5eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 38. artikulua xedatzen duena jarraituko da zehatz.